



## EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN SAILBURUAK ETA HEZKUNTZAKO SAILBURUAK EMANDAKO AGINDUA, SEGURTASUN-INDUSTRIALAREN ARLOKO PROFESIONALEN KUALIFIKAZIOARI BURUZKO DEKRETU-PROIEKTUARI HASIERA EMATEKO

Segurtasun industrialeko instalazioen konplexutasuna dela-eta, instalazio horietan jarduten dutenek ezagutza teoriko eta praktiko asko eta espezifikoa izan behar dituzte, beren eskumenak zorrotz eta segurtasunez mamitzeko. Industria-segurtasuneko euskal sistemari arlo horretan jarduten direnak profesionalizatzeak eman behar dio oinarri; horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legeak 14. artikuluan agente laguntzaile gisa definitzen ditu bai "profesional kualifikatuak" bai "prestakuntzarako aintzatetsitako erakundeak".

Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretua indarrean sartu zenetik, aldaketa ugari eta esanguratsuak etorri dira, baina aldaketa horiek ez diote hainbeste eragin araututako sektoreari, baizik eta erregulazio horren esparruari berari. Aldaketa horiek proiektatu, nagusiki, baina ez soilik, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauak jatorriz babestutako Erkidegoko merkatuan zerbitzuak emateko araubide juridikoan proiektatu dira.

Administrazioak eremu horretan esku hartzeak ekarri duen ikuspegi-aldaketa hain sakona izanik, egoki jotzen da oinarri berriko xedapen bat taxutzea, Batasuneko araudiak zehaztutako ildoaren barruan kokatuta, esparru juridikoa arrazionalizatu eta eguneratzeko.

Hala, beharrezkoa izango da kualifikazio-txartelen figura berriro definitzea, horren gaineko arau-aurrekariak urrun daudenez; izan ere, sektoreko profesionalak merkatuan nola sartu diziplinatzeko bokazioak oinarririk gabe geratu da, Europako botere arautzaileek hasitako liberalizazioaren ondorioz. Horren ondorioz, figura horrek segurtasun-sisteman duen zeregina berriz ebaluatu behar da, eta gaur egun oraindik ere irauteko bidea emateko eta justifikatzeko elementuak bertatik kendu. Gauzak horrela, eragindako sektorea kontrolatzeko eta horri buruzko informazioa emateko txartelen figurak egiten duten lanari aintza eman behar zaio, eta orain arte bigarren mailan egon bada ere, figura hori egon, egoteko helburu eta fundamentu nagusia dela nabarmendu behar da orain.

Etorrizuneko araua egoki izango den ala ez, industria-segurtasunaren antolamendu juridikoaren berrikuntza paraleloak markatuko du. Berrikuntza hori, ziurrenik, industria-segurtasunari buruzko Dekretua indarrean sartzearen bidez finkatuko da (Ekonomiaren Garapeneko sailburuaren 2019ko ekainaren 14ko Aginduaren bidez hasita dago dekretu hori mamitzeko prozedura). Azken proiektu horri esker, agindu honen bidez prestatzen hasten den arauari xedapen-edukiak kentzeko aukera izango dugu, hartara, arauaren xedearen koherentzia eta aurreikuspenen sistematikotasuna ziurtatzeko.

Bestalde, ikasketaren eta hezkuntzaren antolamendu juridikoan eragina izan dute aldaketa batzuek (Bizialdi Osoko Ikasketzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen ondorioz eta, berriki, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen ondorioz), eta, horren arabera, erregulazio-lexikoa ez ezik, tartean diren ezagutza teoriko eta praktikoen eta egiaztatze-sistemen araubide juridikoaren egitura bera ere egokitzeko beharra ekarri dute.





Halere, proiektu hau orokorra izatekoa denez, efikazia-printzipioaren arabera egituratu beharko da nahitaez, printzipio horren mende baitaude administrazio publikoak Konstituzioaren aginduz. Horrenbestez, printzipio horrek baldintzatuko du zer zehaztasun-maila izango duen proiektuaren xedeko arloaren gaineko araudiak eta, xede horietarako, beste inongo aipamenik egin behar ote den, egin asmo dagoen dekretuaren aplikazio-esparrua mugatzea ekar lezaketen helburu espezifikoak dituzten xedapenetara.

Halatsu, profesionaltasun-printzipioaren arabera izan behar dute, halaber, bai egin asmo den tresnak, bai industria-segurtasunaren esparruan esku hartzen duten eragileen jarduna arautzeko araubide juridikoa osatzen duten betebeharrak eta eskakizunak, bateragarriak izan daitezen industria-kalitatearen sistema osatzen duten prozesu eta arau -sorta homogeenekin. Administrazio-kargak sinpletzea eta murriztea izango da, esaten ari garenaren harian, Dekretua egiteko prozeduraren gidalerro nagusia (baita, era berean, administrazio elektronikoari bultzada emateko ahalegina ere).

8/2004 Legearen erregelamendua garatzekotan, nola Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen baitan hala Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen esparruaren baitan, Konstituzioak ezarritako eskumenen banaketak hemen zehaztutako erregelamendu-ahala baliatzeari ezartzen dizkion mugen barruan garatuko da.

Horren guztiaren ondorioz, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikulua betez eta Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariaren proposamenez, honako hau ebatzi dugu:

#### **EBAZPENA:**

**Lehenengoa.**- Hasiera ematea Industria-segurtasunari buruzko Dekretuaren proiektua zuzenbidearen arabera eta agindu honen eranskinean jasotako gidalerroei jarraikiz egiteko prozedurari.

**Bigarrena.**- Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria izendatzea prozeduraren instruktore jarduteko, organo honi dagozkion atribuzioen kontra ez doazen heinean.

Vitoria-Gasteiz, sinatu den datan.

**MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI**

**JOKIN BILDARRATZ SORRON.**

**EKONOMIAREN GARAPEN,  
JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMENEN SAILBURUA**

**HEZKUNTZAKO SAILBURUA**

## ERANSKINA

Agindu honen bidez abiarazten den dekretu-proiektua prestatzeko, honako premisa hauek hartu beharko dira kontuan:

- Lehen aipatutako printzipioetara egokitu beharko du arauak, eta egoki erantzun beharko die Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren antolamendu- eta ordenamendu-premiei, baita haren eraginpean diren gainerako subjektuen eskariei eta premiei ere juridikoki zein materialki bideragarria izan daitekeen guztian.
- Arauaren edukia bat etorriko da Konstituziotik, bete beharreko nazioarteko itunetatik, Autonomia Estatututik eta edukiari loturiko xedapenak dituzten hierarkia-maila bereko edo handiagoko arauetatik eratorritako eskumen-banaketaren araubidearekin.  
Bereziki, ordenamendu juridikoak ahalmen legegileari jarritako mugak bete beharko ditu, baita oinarrian duen Legetik datozen mugak ere.
- Segurtasun industrialean jarduten diren profesionalen kualifikazioaren esparru juridikoa ezarri nahi luke xedapenak, horretarako indarrean dauden xedapenen eduki arautzailea harmonizatuz, arau berriak xedatzen denaren aurka doazenak indargabetuta. Zuzendaritza sustatzaileko zerbitzu juridikoek egindako oharrek alde batera utzi gabe, industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren eduki arau-emaeak gehituko zaizkio testuari, eta lehengoak indargabetuta lagako ditu arau berriak.
- Ez da espero Dekretuak zuzenean eragingo dienik EAEko aurrekontu orokorreari. Hala eta guztiz ere, memoria ekonomiko bat gehituko zaio proiektuari, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan aipatzen diren alderdiak jasotzeko.
- Proposatutako erregulazioak honako alderdi hauek hartuko ditu barnean, besteak beste: kualifikazioaren araubide juridikoa, kualifikazioa egiaztatzeko sistemak eta prestakuntza-erakundearen araubidea.
- Dekretu-proiektuak xede duen arloa, arau-maila eta herritarren legezko interesetan duen eragina kontuan hartuta, hura eratzeko prozedurak izapide, kontsulta eta txosten hauek jasoko ditu (horietatik ondorioztatutako dira arauaren zuzentasuna eta legezkotasuna eta araua Agindu honen edukiarekin bat etortzea bermatuko duten irizpide arautzaileak):

### 1. Hasiara-fasea:

- Arauaren testua egin aurretik, kontsulta publikoa egin behar da. Horretarako, iragarki bat emango da argitara EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, proiektuaren eraginpean diren herritarren iritzia biltzeko, baita legezko interesak edo eskubideak dituzten pertsonen ordezkari diren elkarteena eta erakundeena ere, horien helburuak arauaren xedearekin lotura zuzena duten heinean. Gai hauen gainean eman beharko da iritzia: a) ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak; b) onartzearen premia eta egokitasuna; c) arauaren helburuak; eta, d) aukera arautzaileak eta ez-arautzaileak. Horretarako, xede horietarako xedatutakoa bete beharko da: Erabakia, Gobernu Kontseiluarena, Xedapen Orokorrek egiteko Prozedura aplikatzeko jarraibideak onartzekoa, abenduaren 12ko 132/2017 Ebazpenaren bidez argitaratua.

- Agindu hau argitara emango da ezagutza partekatuko lankidetzaren gunean, *Legesarea*, baita *Legegunean* eta *Irekian* ere. Izapide-tresna elektronikoa, *Tramitagune*, erabiliko da argitalpen horiek modu automatizatuan egiteko, aipatu guneetan argitaratutako informazioa bat etor dadin.

- Genero-inpaktuari buruzko txostena egingo da, edo, bestela, genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela justifikatzeko txostena. Horiek genero-inpaktuaren aurretiatzeko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna sustatzera eta desparekotasunak desagerraraztera bideratutako neurriak txertatzeko jarraibideen arabera egingo dira. Jarraibideok Gobernu Kontseiluaren erabakiz onartu, eta Eusko Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrerarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 ebazpenaren bitartez eman ziren argitara.

## 2. Instrukzio-fasea:

- Egitasmoaren testua idazteari ekingo zaio, gerora kontu hauetan eskumena duten sailletako titularren onespenera jasotzeko aldera.

Egitasmoaren testuak, onespenera eman duten organoen onespenera jaso eta gero, Eusko Legebiltzarrerako bidea hartuko du, Eusko Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikuluan eta beraz aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legearen xedatutakoa betetzeko.

- *Tramitagune*, izapide-tresna elektronikoa erabiliko da instrukzio-fasean.

- Enpresak eratzeko, martxan jartzeko eta abian izateko prozesuetan duen eraginari buruzko ebaluazio-txostena egingo du zerbitzu juridiko eskumendunak, EAEko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Dekretu-proiektua entzunaldi-izapidearen eta jendaurreko informazioaren mende jarriko da, Xedapen Orokorrek egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan xedatutako baldintzen eta zehaztapenen eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan arabera.

- Nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak eskatuko dira izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran.

a) Saileko zerbitzu juridikoak txosten juridikoa egingo du proiektuaren oinarri objektiboa aztertzeko, edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorren ikusteko, eta araugintza teknikaren jarraibideak betetzen diren egiaztatzeko, Xedapen Orokorrek egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

b) Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza-arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan agindutakoari jarraikiz, Xedapen orokorrek egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen baita dekretu horretan.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, erregelamendu-xedapenen eduki ekonomikoa egiaztatzen duena, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzkoa), ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 25. artikuluari dagokionez (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa).

d) Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera. Aholku Batzorde Juridikoari xede horietarako igorriko zaion dokumentazio bera igorriko zaio aldi

berean Eusko Legebiltzarrari, Legebiltzarreko taldeek haren berri izan dezaten, Eusko Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.2 artikuluan ekainaren 2ko 8/2016 Legeak egindako aldaketan xedatutakoaren arabera.

3. Onarpen-fasea:

- Espedienteak atxikita edukiko ditu hasierako agindua, dokumentazioa, azterlanak eta egindako kontsultak.
  - Halaber, prozedura osoaren memoria laburtua eta memoria ekonomikoa gehituko dira. Horietan, berariaz aipatu beharko dira Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10. artikuluan 2 .eta 3. apartatuetan xedatutako alderdiak.
  - *Tramitagune*, izapide-tresna elektronikoa erabiliko da onarpen-fasean.
- 
- Ez dago Europar Batasunean inolako izapiderik egin beharrik.
  - Euskarari buruzko 10/1982 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, testu arautzailea gaztelaniatik euskarara itzuliko dute Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko itzulpen-zerbitzuek.